

Fitero-ko Monasterioa

En los límites ribereños de Navarra, más allá del Ebro, situado en el punto de encuentro de tres reinos (Castilla, Navarra, Aragón), este monasterio de Fitero compartió con otros monasterios del Reino la espiritualidad de la Orden del Císter, desde el siglo XII hasta la exclaustración del s. XIX (1836), y vivió una historia particularmente conflictiva en sus relaciones exteriores.

Lizarra ondoko Aiegi herriari Iratxeko monasterioarekin gertatuko zitzaion bezala, Fitero-ko herri honi ere monasterioari lotuta berorren inguruan haztea suertatu zitzaion; beste nolobait esateko, monasterio-herri izan zen Fitero, lehenengo monasterio eta gero herri.

Monasterio-herri batean

Yerga eta Niencebas-en (1140, 1141) egon zen lehen monasterioa, laster gaurko Fiteroko egon-lekura aldatu zen arte (1152). Zizter-k Tarbes inguruan sortutako Morimond-eko monasterioaren leinukoa zen Fitero, eta berorren arrastoan egingo zuen bere bizitza Etxe honek.

Niencebas-en jartzeko Gaztelako Alfontso VII.aren (1126-1157) laguntza izan zuten lehen zistertar haiek, eta San Erramun Fiterokoa († c. 1160) bilakatu zen guztien gidaria lehen urratsak ematean. Calahorrako diozesian sortutako monasterioa (Yerga) Tarazona-kora aldatu zen (Fitero). Fitero Gaztelako lurretan egon zen 1373a arte, ondoren Nafarroako Erresumakoa izateko.

Sortu eta laster, monasterio honek protagonismo famatua izan zuen *Reconquista* deitu izan zenaren barruan, San Erramun Fiteroko Abadeak eta bertako zenbait monjek sortu baitzuten Ciudad Real-en Calatravako Ordena Militarra (1158). Ahulena edo geratu ziren Fiteron, eta gainerako monjeak, Gaztelako Erregearen deiari erantzunez eta Gurutzada

giro bero hartan, Calatravako gaztelu-monasterio berrirako bidea hartu zuten. Almohadeen erasoari aurre egiteko izan zen aldakuntza, une historiko larrian, gainera.

Hori horrela, Fiteroko monasterioak berak monje-bizitza garbiari eutsi zion, beharbada inoiz ez monje askorekin; baina bai garaian garaiko monakatuaren bideetatik zebilela, herria eta jaurerria bere eskuetan zituela. Nafarroako XV. mendeko gerra zibilen artean, dozena eskas bat monje omen zituen Fiterok; baina beti izan zen itzal handiko monasterioa. Fiteroko Abadearen zuzenbidezko eskumena indartuz joan zen, alde batetik jaurerrian zuen eskumen zibila, eta bestetik baita herritarren gain zuen eskumen espirituala ere.

Fiteroko Abadeek Nafarroako Gortean beren eserlekua izan zuten, beste hainbat monasteriotakoek bezala. Aipatzekoa da, gainera, nola Aita Santuek Fiteroko Abadeari gotzain-eskumenak aitortu zizkioten (1556, 1560), Tarazonako gotzainaren kaltetan.

XVII-XVIII. mendeetan ezagutu zuen Fiterok bere kultur loraldi ederrena, teologo, historialari eta idazleekin. Inprimategia ere izan zuen orduan monasterioak.

Monasterioaren inguru soziala

Erdi Aroan sortutako monasterio hautatu batzuek ondasun-erreinu oso bat moldatu ahal izan zuten Nafarroan. Horretarako eliz legeek



lagundu zien, eta era berean gizarteko indar nagusiek. Fiteroko monasterio honen historia begiratzekoa da halako monasterio-jaurerriek izan zitzaizketen arazo eta gatazkak ezagutzeko.

Monasterioak bere ondoan lur-sailak zituzenez, bertantxe behar zuten zenbait langile. Esaterako, 1410ean familia gutxi batzuen esku zegoen egiteko hori, Erdi Aroko maizterlangileei (*collazo* deituei) ezartzen zitzaizkien baldintzetan lan egin behar zutenak. Artean, gutxi ziren.

Aurrera egin ahala, herrixka bat biltzen ari zen monasterioaren ingurura. Gerra zibilen arriskueta monasterioari segurtasun irmoagoa eman nahi izan zitzaion, eta 1482tik aurrera, Abadeak berak deitu zituen kanpotik bizilagun berriak herri bat osa zezaten, lurrak eta etxebizitzak eskainita. Errioxako zenbait herritar behartsuk aukera ona ikusi zuten eskaintza hartan, eta Fiterora bildu zen.

Denen bizimodua hobetzeko, bileratan arau xumeak adostu eta herri-elkartasuna indartu nahi izan zuten. Lehenengo lorpen handia, Abadearekin bilduta, Herri-Ordenantzak onartzea izan zen (1520): aurrerantzean, San Migel egunez, "herritar onak" aukeratzeko eskumena izango zuten herritarrek, herria gidatu eta goberna zezaten, eta ondasun-zainak ere bai, baratza, soro, mahasti, olibadi eta abar gorde zitzaizten. Beraz, lehenengoz herri-arauak hitzarmen batean onartu ziren, monasterioaren eta herritarren artean.

Horrek, ordea, ez zituen bizi- eta lan-baldintza pertsonalagoak aldatzen, eta herritarrak maizter lotuak izaten jarraituko zuten, segurtasun juridiko berri baten barnean bai, baina askatasun eskasarekin.

1542ko San Migel egunean monasterioak bere eskubideak gehitu eta indartzeari ekin zion berriro; handik aurrera monasterioko Nagusiak bere burua "Lekuko Jaun eta Abade" aitortu zuen, eta 1520ko Ordenantzaren arabera aukeratu behar zirenen izen-zerrenda eginda eman zuen; baina auzotarrek nahiago izan zuten aginduari ez-ikusirik egin eta beren gustukoak hautatu. Hortik eta ondoko erabakietatik piztutako auzietan Nafarroako Erret Auzitegiak, ia beti, monasterioari bere jauntxuna ezagutu zion, eta egoerak txarrera egin zuten herritarrentzat.

Halako batean, legezkotasun hutsean esperantza galduta, herritarrek erabaki ausarta hartu zuten. Felipe II.ari herrigune beregaina sortzeko baimena eskatu zioten monasterioaren mendeko auzotarrek eta Erregerengandik baizkoa jaso (1548). Ez alferrik, Nafarroako Auzitegi Gorenak iradokita, Madrilako dekretu batek moztu baitzuen hartarako bidea (1563).

Epaitegietako borrorak aurrera jarraitu behar izan zuten, itxaropen handirik gabe, non-bait, eta errebolta eta matxinadara jo zuten herritarrek (1627); aukera hoberik egokitu zenean, osterera ere herrigune berria sortzeko asmoari heldu zion herriak, baina horretarako baimena ukatu zitzaizkien bigarren (1643). Hortik aurrerako hamarkadak gatazkatsuak izan ziren, osterera, herritarrek armak hartu eta monasterioaren kontrako zinezko matxinada sortu zen arte (1675).

Benetan, eliz historia triste da Fiteroko hau: monasterioak herria egin zuen, baina ez zen heldu herri aske bat burutzera.

Joseba Intxausti